



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/06/28

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu Urdulizko ospitalea zabaltzen dala eta azterlan barriak egitea

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu gaur, Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean, Batzarretako EH Bildu taldearen Arauz Besteko Proposamen bat. Proposamen horretan, beste gauza batzuen artean, Urdulizko ospitalea zabaltzearen ondorioak zeintzuk izango diran jakiteko “azterlanak” egitea eskatu jake Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari. Koalitzino abertzaleak, bere proposamenean, Osakidetzaren esku dagoan ospitale gunea “eskualdeko ordenamenduaren eta mobikortasuneko fluxuen barruan” jarteko beharrezkoak diran “neurriak” planteatu ditu, ingurunean “kalterik” ez eragiteko. EH Bilduk Podemos Bizkaiaren aldeko botoak baino ez ditu jaso, eta gainerako taldeek kontra bozkatu dabe (EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Mistoa).

Batzordeko kideak ekimenaren puntuetako bategaz baino ez dira bat etorri. Puntu horretan modu “positiboan” baloretan da Alfredo Espinosa ospitalearen irekierea. Proposamenaren gainerako puntuetan ez da adostasunik egon. Proposamen horretan eskaria egiten jakon Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, ospitalearen plan funtzionalaren eta zerbitzuen karteraren gaineko informazio eguneratua emoteko. Horrez gain, Urdulizko ospitalean eskaintzen diran zerbitzu “guztia”, “garbiketea, mantentze-lanak eta sukaldea” barru dirala, Osakidetzak “baliabide propioakaz” zuzenean kudeatea be eskatu da. EH Bilduko Meritzel Elgezabalek eta Podemos Bizkaiko Asun Merinerok zerbitzu horreen “pribatizazioaz” egin dabe berba.

Gainerako taldeen eretziz, “ohiko” jardunbidea da administrazioek zerbitzu batzuk azpikontratatea, “gubernuan edo Jaurlaritzan dagoana talde bat edo beste bada be”, adierazo dau Javier Ruiz popularrak, EH Bilduren edo Podemos Bizkaiaren esku dagozan beste administrazio batzuk aitatuz. “Anbulantzien mantentze-lanak be baliabide propioak erabiliz egin behar dira?”, erantzun deutse Unai Lerma jeltzaleak. Bere eretziz, zerbitzu batzuk “kanpora aterateak” ez dau “ezelango pribatizaziorik” egingo danik adierazoten, “kudeaketa zuzena” baino, lehentasuna emonez herritarrei eskaintzen jaken “zerbitzu hoberenari”.

Horrez gain, Batzarretako Euzko Abertzaleak taldearen ordezkariak, bere taldeak koalitzino abertzalearen proposamenaren kontra agertu dauen jarrera azaldu dau, bere eretziz, ospitaleak mobikortasunari eta garraio publikoari jagokenez behar dituan azterlanak “daborduko eginda dagozala” uste dauelako. Jeltzaleek eta sozialistek, Vicente Reyes Garraio diputatuaren azkenengo agerraldia gogoratu dabe. Bertan, Bizkaibus zerbitzua, “faseka” zabalduko dan ospitale baten “eskarira egokituz” joango dala iragarri eban. Gogoratu dabenez, ospitalearen erabiltzaile potentzial “gehienek” –180.000 pertsonak– metroaren zerbitzua “gertu” izango dabe, eta gainerakoentzat, Uribe Kostatik Bizkaibuseko linea barri bat sortu edo beste batzuen ibilpidea aldatu egingo da. Hasiera baten, Aldundiaren esku dagozan autobusak ospitaletik “200 metrora” geldituko dira, sarbideak oraindino amaitu barik dagozalako.

SAN MAMESEKO VIP PALKOAK

Beste alde batetik, Ibone Bengoetxea Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andrea Bizkaiko Batzar Nagusietara joan da, EH Bilduk eskatuta, San Mamesen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

kudeetan dituan VIP palko bien erabilerarako Aldundiak dituan “erispideen” barri emoteko. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, erreserbautako gune horreek “erakundeen arteko hartu-emonak finkatzeko aukerea dira”, “eragin” handia dabelako lurraldearen hedapenean. Horrez gain, aukerea emoten dabe “Aldundiagaz alkarlanean aritzen diran edo lurraldearen garapenaren alde behar egiten daben” eta hirugarren sektoreagaz erlazionauta dagozan erakundeei eta kultura, kirol edo enpresa arloetako erakundeei San Mames esperientzia zabaltzeko.

Bengoetxeak adierazo dauenez, aurtengo “otsailetik” Aldundiak kudeetan dituan gune bi horreek 152 pertsonak bisitatu ditue Athletic taldeak jokatu dauen egunetan: “4” Frantziako enbaxadatik etorri dira; “2” Estatu Batuetako enbaxadatik; “Toki administrazinoko eta euskal erakunde publikoetako ordezkariak 37 konbidapen” jaso ditue; “21 konbidapen kulturaren garapenagaz (dantzak, zinea, musikea eta euskeraren laguntzea eta sustapena) erlazionautako pertsonentzat izan dira”; “lurraldean inbertsinoak egiteko proiektuak dituen enpresa alkarteetako eta azpiegituren garapenerako erakunde publikoetako 44 ordezkari”; eta “gizarteratzearen eta urritasunaren eta pertsona nagusien arloetan behar egiten daben alkarteetako eta GKEetako kideek beste 44 konbidapen jaso ditue”. Pertsona horreek, Aldundiaren “15” ordezkariak lagunduta joan dira palkoetara.

Oposizinoen taldeek (EH Bildu, Podemos, PP eta Mistoa), palkoak lurraldeko “beste” talde eta alkarte batzuei eta “herritar guztiei” zabaltzea planteatu dabe, horreen existentzia “bizkaitar guztion” ekarpen ekonomikoari esker dalako posible. Bengoetxeak ez dau proposamen hori “baloretea” baztertu.

Aldundia eusten daben batzarretako talde biak –EAJ-PNV eta PSE-EE– harritura agertu dira, San Mamesek “hainbeste gai eta puntu” sortzen dauelako. “Bakotxa librea da bere lehentasunak marketako orduan, baina badagoz gai garrantzitsuagoak”, kritikatu dau Alexia Castelo sozialistak. Jon Andoni Atutxa EAJ-PNV taldeko bozeroaleak azaldu dauenez, Aldundiak, lehenengo bisita horreen ebaluazinoa egin ostean, bere gonbidatuen esparrua “zabalduz joatea” planteatu daiteke. Zoritxarrez, Athleticen zelaia “gai izarra” bilakatu da talde batzuentzat, izan be, bere berbetan, modu batean edo bestean azaldu behar dabe “zelaiaren eta taldearen aurrean daben ezinikusia eta gorrotoa”.

BIZKAIKO PORTUAK

Beste alde batetik, EH Bildu taldeak, baztertu egin dau “adostasun handiagoa lortzeko asmoz”, Bizkaiko Portu Autonomoak (Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka, Bermeo, Arminza eta Plentzia) zein egoeratan dagozan jakiteko Lakuako Jaurlaritzak azterlana egitea eskatzen eban arauz besteko proposamena. Proposamen horretan bertan, hobekuntzarako proiektu “zehatzak” –“garabiak eta sarbideak errepidetik eta trenbidetik”– martxan jartea eta erakundeen arteko mahaia eratzea eskatzen zan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
28/06/2016

Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan la elaboración de nuevos estudios por la apertura del hospital de Urduliz

El Parlamento de Bizkaia ha rechazado hoy en el seno de la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, una proposición No de Norma del grupo juntero EH Bildu en la que se solicitaba, entre otros asuntos, la elaboración, por parte de Gobierno vasco y Diputación, de “estudios” para analizar las consecuencias de la apertura del hospital de Urduliz. La coalición abertzale planteaba en su propuesta la puesta en marcha de “medidas” para ubicar el centro hospitalario de Osakidetza “dentro de la ordenación y los flujos de movilidad de la comarca” con el fin de evitar “perjuicios” en el entorno. EH Bildu ha obtenido el apoyo únicamente de Podemos Bizkaia, y el rechazo del resto de grupos de la Cámara vizcaína (PNV, PSE-EE, PP y Mixto).

Los miembros de la comisión sólo han coincidido en uno de los puntos de la iniciativa en donde se valoraba “positivamente” la apertura del hospital Alfredo Espinosa. Para el resto de cuestiones no ha habido consenso. En la proposición, se pretendía instar al Departamento de Sanidad del Gobierno vasco a aportar información actualizada sobre el plan funcional y la cartera de servicios del hospital, así como que “todos” los servicios que se ofrecieran en el hospital de Urduliz fueran gestionados directamente por Osakidetza “con medios propios”, incluidos “la limpieza, el mantenimiento y la cocina”. Meritxel Elgezabal, de EH Bildu, y Asun Merinero, de Podemos Bizkaia, han hablado de que se va a producir la “privatización” de estos servicios.

Para el resto de grupos, es una práctica “habitual” que las administraciones subcontraten algunos servicios, “gobierne quien gobierno”, ha sostenido el portavoz popular Javier Ruiz, haciendo alusión a otras administraciones que están en manos de EH Bildu o Podemos Bizkaia. “El mantenimiento de las ambulancias, ¿también con medios propios?”, les ha respondido el jeltzale Unai Lerma, para quien la “externalización” de algunos servicios no es sinónimo de “ninguna privatización”, sino de “gestión directa” en donde debe primar “el mejor servicio” a la ciudadanía.

Asimismo, el representante del grupo juntero Nacionalistas Vascos ha explicado la postura contraria de su grupo a la propuesta de la coalición abertzale por considerar que los estudios sobre las afecciones del centro hospitalario en cuanto a movilidad y transporte público, “ya están hechos”. Jeltzales y socialistas han recordado la última comparecencia del diputado de Transportes, Vicente Reyes, en la que advertía de que el servicio de Bizkaibus se iría “adaptando a la demanda” de transporte de un centro hospitalario que se abrirá “por fases”. Han recordado también que “la mayor parte” de los potenciales usuarios del centro -180.000 personas- tendrán “cerca” el servicio del metro y que, para el resto, o bien se creará una nueva línea de Bizkaibus por Uribe Kosta o se modificará el trayecto de otras. Inicialmente, los autobuses forales pararán “a 200 metros” del hospital al no estar terminados los accesos.

PALCOS VIP DE SAN MAMES



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por otro lado, la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha acudido a las Juntas Generales de Bizkaia, a petición de EH Bildu, para comparecer por los “criterios” que emplea la Diputación por el uso de los dos palcos VIP que gestiona en San Mames. La responsable foral ha apuntado a la utilización de estos espacios reservados como “oportunidad para afianzar relaciones institucionales”, ya que tienen un “impacto” en la difusión del territorio, así como para “abrir la experiencia San Mames a entidades que colaboran con la Diputación o que trabajan por el desarrollo del territorio” y que están relacionadas con el tercer sector, y con entidades culturales, deportivas o empresariales.

Bengoetxea ha apuntado que “desde febrero” de este año los dos espacios gestionados por la Diputación han sido visitados en días de partido del Athletic por 152 personas: “4” procedentes de la embajada francesa; “2” de la embajada de EE.UU; “37 invitaciones han sido para representantes de la Administración local y entidades públicas vascas”; “21 personas relacionadas con el desarrollo cultural (danzas, cine, música y apoyo y promoción del euskera)”; “44 representantes de asociaciones empresariales con proyectos de inversión en el territorio y de entidades públicas de desarrollo de infraestructuras”; y otros “44 representantes de asociaciones y ONGs que trabajan a favor de la inclusión y en el ámbito de la discapacidad y de las personas mayores”. Estas personas han ido acompañadas de “15” representantes de la Diputación.

Los grupos de la oposición (EH Bildu, Podemos, PP y Mixto) han planteado que los dos palcos se abran a “otros” grupos y asociaciones del territorio y a la “ciudadanía en general”, ya que su existencia se debe a la aportación económica “de todos los vizcaínos y vizcaínas”. Bengoetxea no se ha cerrado a “valorar” esta propuesta.

Por su parte, los dos grupos junteros que apoyan a la Diputación -PNV y PSE-EE- se han sorprendido de que San Mames ofrezca “tanto juego”. “Cada uno es libre de marcar sus prioridades pero hay otros asuntos bastante más importantes” en Bizkaia, ha criticado la socialista Alexia Castelo. El portavoz del PNV, Jon Andoni Atutxa, ha explicado que la Diputación tras hacer la correspondiente evaluación de estas primeras visitas, podrá plantearse “ir haciendo ampliaciones” en relación a las personas o colectivos que invita. Ha lamentado que el estadio del Athletic se haya convertido en “tema estrella” para algunos grupos, que deben explicar, según él, “su hostilidad y aversión inquina hacia el campo y el club”.

PUERTOS DE BIZKAIA

Por otro lado, EH Bildu ha retirado finalmente, “en aras a lograr un mayor consenso”, una proposición no de norma en la que solicitaba que el Ejecutivo de Lakua llevase a cabo un estudio para conocer la situación en la que se encuentran los Puertos Autónomos de Bizkaia (Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka, Bermeo, Arminza y Plentzia), además de poner en marcha proyectos “concretos” de mejora –“grúas y accesos por carretera y vías férreas”- y crear una mesa interinstitucional.